

Bileraren izena:

UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA KONTSEILUAREN BILERA

Lekua eta eguna: Leioa, 2016ko maiatzaren 26a

Hasiera ordua: 12:00

Amaiera ordua: 14:15

Bileran buru izango dena:

Iratxe Amiano (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria)

Idazkaria:

Estibaliz Martínez (Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko teknikaria)

Parte hartzaileak:

Marta Macho

María Romero

Jokin Alberdi (12:17an iritsi da bilerara)

Aitor Gómez (ISF-MGI elkarteak)

Ez dira etorri:

Maite Zelaia (Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordea)

Urtzi Saratxaga (ikasleen 0,7)

Nerea Madariaga (Letren Fakultatea)

Amaia Monteagudo (ARKOO ikasleen elkarteak)

Karlos Perez de Armiño (HEGOA)

María Mirtes Clotilde (Alea Elkarteak)

Mari Paz Santos Ibañez (BIONATUR).

Aztergaien zerrenda:

1. Errefuxiatuen arretarako ekintzak UPV/EHU.
2. Galde-eskeak.

Akta

Bilera hasteko, Iratxe Amianok eskerrak eman dizkie Kontseiluko kideei bilerara etortzeagatik eta desenkusatu egin da bilera ezin izan zelako ikasturte hasieran egin. Ezohiko deialdi hau arrazoitzeko, adierazi du Gobernu Kontseiluak 2015eko urrian hartutako erabakiak eginkizun batzuk ematen dizkiola UPV/EHUko Lankidetzaren Kontseiluari, berehalaz gauzatu beharrekoak.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren web orria baliatuz, non bulegoak arlo honetan sustatzen dituen jarduerak deskribatzen diren (<http://www.ehu.eus/es/web/oficop/ehu-babes-eske-datozen-pertsonen-eskubideen-alde>), UPV/EHUK errefuxiatuen gain abian jarri dituen ekimen eta ekintzei buruzko informazioa eman dio Iratxe Amianok Kontseiluari. Beharrak eta unibertsitatearen ekarpen posibleak aztertzeke egin diren bileretatik lortutako informazioa erantsi du. Bilerak egin dira Eusko Jaurlaritzarekin eta asiloa eskatzen duten pertsonekin lanean diharduten gobernu kanpoko erakundeekin (CEAR, Gurutze Gorria, ACNUR, ACCEM, Caritas...).

Jarduerak lau ardatz tematikoren inguruan artikulatzen dira, eta ardatz horiek zehaztu daude Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 1ean aho batez hartu zuen akordioan. Akordio horretan, UPV/EHUK bere gain hartzen du asilo eta babes eskaera egiten duten pertsonen eskubideak aitzakiarik gabe defendatzeko eginkizuna.

Aztergaien zerrendako lehen puntua: Errefuxiatuen arretarako ekintzak UPV/EHUⁿ

Aurretik aipatutako akordioan, UPV/EHUK 10.000 euro bereizten ditu 2016ko bere aurrekontuetan laguntza funts bat sortzeko. Akordioaren arabera, *UPV/EHUren Lankidetzak Kontseiluak funts hori erabiltzeko proposamen arrazoituak egingo ditu, eta, ikasturte amaieran, eginikoaren kontu arrazoiak emango dizkio Gobernu Kontseiluari, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren bidez.*

Kontuan izanik aurrekontu partida 2016an erabili behar dela, eta lehen aipatutako gizarte erakundeekin beharrak identifikatu ondoren, Iratxe Amianok proposatu du funts hau erabiltzea 2016/17 ikasturtean alojamendua eskaintzeko errefuxiatu egoeran dauden edo asilo eskatzaileak diren ikasleei, UPV/EHUko Egoitza edo Ikastetxe Nagusietan, giro egoki bat aurkituko dutelakoan unibertsitate ikasketak egiteko. Laguntza emateko irizpideak arautuko lituzkeen deialdi bat idatz liteke, pertsona horien egoera ezagutzen duten gizarte erakundeekin laguntzaz.

Proposamenari, kontrako argudio hauek aurkeztu zaizkio:

- Aipatu da beharbada unibertsitate egoitzak ez direla aukera merkeena, eta beste ostatu mota bat bilatzeko aukera aipatu da; hala nola etxe partekatuak, etab.
- Jokin Alberdiren ustez, errefuxiatuen alojamendu beharrari erantzutean, UPV/EHU bere gain hartzen ari da beste administrazio batzuei dagokien erantzukizuna. Unibertsitateari ez dagokio laguntza neurri hauek hartzea, eta beste erakunde batzuek arduratu behar dute gai horretaz. Unibertsitatearen zeregina da pentsamendu kritikoa sustatzea, eta, alde horretatik, EHUgune lan oso garrantzitsua egiten ari da errefuxiatuen gaiari buruzko bere gogoeta eta *brainstorming* saioekin. Dagoeneko egin diren hiru saioen ondoren, campusetan lantaldeak artikulatzeko ekimen bat jarri da abian (irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak). Alberdiren iritzian, funtsaren zati bat (3.000 € proposatu du) erabili beharko litzateke ekimen hori eta ehuguneak babesteko.
Gainera, aurreko funts osoa alojamenduan erabiltzen badugu, datozen urteetan arazo bat izango dugu, errefuxiatu kopurua askoz handiagoa izango delako eta ez dugulako baliabiderik izango eskaerari erantzuteko.
- Marta Machok erantsi du funtsari emango diogun erabilerak eragin zuzena izango duela etorkizunean funtsari ekarpena egingo dioten pertsonen kopuruan. Errefuxiatuengan eragin zuzena duten jardueretan erabili beharko litzateke, eta ez diru laguntza beste iturri batzuetatik lor dezaketen sentsibilizazio ekimenetan.
- Aitor Gómezek uste du 10.000 €-rekin soilik pertsona bati edo biri eskainiko geniekeela alojamendua, eta, aldiz, ekimen gehiago jarriko genituzkeela abian garapenerako hezkuntza arloan. Baloratu beharreko zerbait da. Unibertsitatea hezkuntza kritikorako foro bat da.
- Maria Romerok proposatu du deialdi batean biltzea bai alojamendu eta mantenu ekimenak bai sentsibilizazio jarduerak. UPV/EHUko teknikari gisa, prozesua deialdi publiko bidez arautzearen garrantzia nabarmendu du, UPV/EHUko arategiak eskatu moduan.

Iritzi guztiak entzun ondoren, akordio hau hartu da, aho batez:

1. UPV/EHUⁿ alojamendu beharrei erantzuteko egon daitezkeen beste aukera

eta bide batzuk aztertzea (adindunekin partekatutako etxeak, prezio txikiko alokairuak lan boluntarioa eginez...).

2. Laguntzen deialdi bat egitea, EAEn dauden errefuxiatuen arretan sortzen diren aparteko beharrei erantzuteko.

Deialdi honek erreferentziatzat hartuko ditu UPV/EHUko GOBERNU KONTSEILUAK 2015eko URRIAREN 1ean HARTU ZUEN ERABAKIAREN puntu guztiak, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BIZI DIREN ERREFUXIATUEN arretarako EKINTZEI buruzkoak. Akordioaren ardatz nagusiak dira:

- Lehenengo ardatza: oinarrizko laguntza (indibiduala edo kolektiboa) errefuxiatuei.
- Bigarren ardatza: laguntza unibertsitatean sortzen diren behar bereziei erantzuteko.
- Hirugarren ardatza: eztabaida hastea eta gaiari buruzko sentsibilizazioa bultzatzea.
- Laugarren ardatza: laguntza ekonomikoa eta materiala.

Deialdiaren hiru adjudikazio datak izango dira: uztailaren 15a, urriaren 1a eta abenduaren 5a.

Lankidetzaren Bulegoko teknikariak deialdiaren zirriborroa idatzi eta lehenbailehen igorriko du Lankidetzaren Kontseilura eta UPV/EHUko aholkularitza juridikora, onespena eman diezaioten.

Beste gai batzuk: galde-eskeak

Jokin Alberdik kritikatu egin du Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren funtzionamendua, eta bere nahigabea adierazi du. Argitasuna eskatu du kontseiluaren helburuetan, eta salatu du ez dela egin 2015eko irailerako programatuta zegoen bilera, zeinak egutegi bat zehaztu behar baitzuen Plan Estrategiko bat lantzeko Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluarentzat.

Ikasturte honetan, kontseiluak ez du bilkura bakar bat ere egin, eta Alberdiren iritzian, ez dira betetzen ari kontseiluari sortzean ezarri zitzaizkion eginkizunak. Gainera, bilerak ez dira batere prestatzen eta ez da nahikoa informazioa bidaltzen alde aurretik. Horrela jarraituz gero, adierazi du ez dela hurrengo bileran izango.

Bileran izan direnek bertaratze orria sinatu dute.

Hurrengo bilera:

Ez da datarik zehaztu.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitu da.